

IXIL IXILIK DAGO

Ixil ixilik dago, kaia barrenian / Ontzi txuri polit bat uraren gainean.

Ixil ixilik dago, kaia barrenian / Ontzi txuri polit bat uraren gainean.

Goizeko ordu bietan, esnatutzen gera / Arrantzaliak beti, joateko urrutira.

Goizeko ordu bietan, esnatutzen gera / Arrantzaliak beti, joateko urrutira.

Zergatik, zergatik, zergatik, ZERGAITIK? / Zergatik negar egin?

Zeruan izarra dago, itsaso aldetik.

Zergatik, zergatik, zergatik, ZERGAITIK? / Zergatik negar egin?

Zeruan izarra dago, itsaso aldetik.

Bat, bat bat, Bart parrandan ibili / Bart parrandan ibili,

Bi, bi, bi, Ez naiz ondo ibili / Ez naiz ondo ibili,

Hiru, hir, hir, Kolkua bete diru / Kolkua bete diru,

Lau, lau, lau, Sardina bakalau.

Anteron txamarrotia, Sinkarren bibotia,

Haretzek ei dauka, ei dauka / Presko tximiñoia

Anteron txamarrotia, Sinkarren bibotia, Haretzek ei dauka, Presko tximinoia.

Anteron txamarrotia, Sinkarren bibotia, Haretzek / ei dauka / Presko tximinoia.

Hau dek, hau dek / Hau dek umoria.

Kontsolatzeko, kontsolatzeko / Euskaldun jendia.

Kalian gora, kalia behera / Kalian gora zezena, ai, ai, ai!

Kalian gora, kalia behera / Kalian gora zezena.

Kalian gora, kalia behera, Kalian gora, kalia behera

Kalian gora, kalia behera, Kalian gora zezena.

Kalian gora, kalia behera, Kalian gora, kalia behera

*Kalian gora, kalia behera, **Kalian gora zezena!***

GUK EUSKARAZ

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen (BIS)

Eta zuek, denok, ur gazi bat atera zenuten, handik nekez.(BIS)

Guk Euskaraz, zuk zergaitik ez? (BIS)

Orain zuen birtutez zuen indarrez (BIS)

Euskara itsaso urdin eta zabal bat izanen da, eta guria da (BIS)

Guk Euskaraz, zuk zergatik ez? (BIS)

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen (BIS)

Eta zuek, denok, ur gazi bat atera zenuten, handik nekez. (BIS)

Guk Euskaraz, zuk zergatik ez? (BIS)

DESDE SANTURCE A BILBAO

Desde Santurce a Bilbao / Vengo por toda la orilla,
Con mi salla remangada / Luciendo la pantorrilla,
Vengo deprisa y corriendo / Porque me oprime el corsé,
Voy gritando por las calles / ¡Quién compra! Sardiña freskue!

Mis sardinitas, Que ricas son, Son de Santurce, Las traigo yo. **(BIS)**

La del primero me llama / La del segundo también,
La del tercero me dice / ¿A cómo las trae usted?
Y yo le digo que, a cuatro / Ella me dice que, a tres,
Cojo la cesta y me marchó / ¡Quién compra! Sardiña freskue!

Mis sardinitas, Que ricas son, Son de Santurce, Las traigo yo. **(BIS)**

....MUSIKA.....

Y yo le digo que, a cuatro / Ella me dice que, a tres,
Cojo la cesta y me marchó / ¡Quién compra! Sardiña freskue!

Mis sardinitas, Que ricas son, Son de Santurce, Las traigo yo.

Mis sardinitas, Que ricas son, Son de Santurce, LAS TRAIGO YO!

ITSASONTZI BATEN

-Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora,
Naramate eta ez dakit nora. **(BIS)**
Agur nere ama, Laztan goxoari, Agur nere maite politari.
Ez egin negar, Etorriko naiz, Egunen baten, Pozez kantari. **(BIS)**

-Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora,
Naramate eta ez dakit nora. **(BIS)**
Agur senideak, Agur lagunari, Agur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar, Etorriko naiz, Egunen baten, Pozez kantari. **(BIS)**

-Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora,
Naramate eta ez dakit nora. **(BIS)**
Agur nere ama, Laztan goxoari, Agur nere maite politari.
Ez egin negar, Etorriko naiz, Egunen baten, Pozez kantari.

Agur senideak, Agur lagunari, Agur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar, Etorriko naiz, Egunen baten, Pozez kantari.

Gora Euskal Herri, Gora Euskal Herri, Gora Euskal Herriari!

XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen, Orotan bihotz-bera
Poesiaren hegoek, Sentimentuzko bertsoek, Antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari, Bakardadez josia
Hitzen lihoa iruten, Bere barnean irauten,
Oinazez ikasia..., ikasia.

-Nun hago, zer larretan, Urepeleko artzaina
Mendi hegaletan gora, Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana. (BIS)

Hesia urraturik, Libratu huen kanta
Lotura guztietatik, Gorputzaren mugetatik, Aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela, Bertsorik sakonena
Inoiz esan ezin diren, Estalitako egien,
Oihurik bortitzena..., bortitzena.

Nun hago, zer larretan, Urepeleko artzaina
Mendi hegaletan gora, Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana. (BIS)

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal herrian euskaraz / Nahi dugu hitz eta jolas

Lan eta bizi euskaraz eta / Hortara goaz.

Bada garaia noizbait dezagun / Guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak / Gure hizkuntzak har dezan arnas,

Bada garaia noizbait dezagun / Guda hori gal edo irabaz.

—MUSIKA - - - - -

Euskal herrian euskara / Hitz egiterik ez bada

Bota dezagun demokrazia / Zerri azkara

Geure arima hiltzen uzteko / Bezain odolgalduak ez gara.

Hizkuntza gabe esaidazue / Nola irtengo naizen plazara,

Geure arima hiltzen uzteko / Bezain odolgalduak ez gara.

—MUSIKA - - - - -

Euskal herri euskalduna / Irabazteko eguna

Pazientzia erre aurretik / Behar duguna,

Ez al dakizu euskara dela / Euskaldun egiten gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere / Hizkuntza ere galtzen duena.

Ez al dakizu euskara dela / Euskaldun egiten gaituena?

AGUR XIBERUA

**Agur Xiberua, Bazter güzietako xokhorik eijerrana
Agur sorlekhia, Zuri ditit ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik, Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik, Bizi niz trixterik, Abandonatürik
Ez beita herririk, Parisez besterik, Zü bezalakorik.**

Sorlekhia ützerik gazte nintzalarik / Parisen sarthü nintzan korajez betherik
Plazerez gose eta бүrian hartürik / Behar niala alagera bizi
Bostetan geroztik, Nigar egiten dit, Xiberua zuri!

**Agur Xiberua, Bazter güzietako xokhorik eijerrana
Agur sorlekhia, Zuri ditit ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik, Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik, Bizi niz trixterik, Abandonatürik
Ez beita herririk, Parisez besterik, Zü bezalakorik.**

Palazio eijerretan gira alojatzen, Eta segur goratik aide freska hartzen
Gaiñ behera soginez beitzait üdüritzen, Horri gañen nizala agitzen
Bene ez dira heben, Bazterrak berdatzen, Txoriek khantatzen!

**Agur Xiberua, Bazter güzietako xokhorik eijerrana
Agur sorlekhia, Zuri ditit ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik, Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik, Bizi niz trixterik, Abandonatürik
Ez beita herririk, Parisez besterik, Zü bezalakorik.**

Ametsa, lagün nezak ni Atharratzerat, Ene azken egünen han igaraitea
Orhiko txoriaren khantüz behatzera, Pharka ditzan nik egin nigarrak
Hots, Xiberotarrak, Aintzinian gora, Eskualdün bandera!

**Agur Xiberua, Bazter güzietako xokhorik eijerrana
Agur sorlekhia, Zuri ditit ene ametsik goxuenak
Bihotzan erditik, Bostetan elki deitadazüt hasperena
Zü ützi geroztik, Bizi niz trixterik, Abandonatürik
Ez beita herririk, Parisez besterik, Zü bezalakorik.**

FURRA FURRA

(POLIKI) Furra, furra, fandangua,

Hortxe duzu fandangoa geure gustukua (BIS) *(Musika)*

Gaur goizean jeiki naiz, Suerte onean,

Tanke bat topatu dut, Neure kafesnean.

Ez dakit zer daukagun, Bake ala gerra,

Bainan nik badaezpada, Egin dut puzkerra.

FURRA FURRA FANDANGUA... *(Musika)*

Zerbait egitekotan Zuzen eta artez,

Zorri bat garbiu dut Ur pistola batez.

Orain galdurik nago Beldurrez beteta,

Muniziorik gabe Gelditu naiz eta.

FURRA FURRA FANDANGUA... *(Musika)*

Neure arma bakarra Dut akordeoia,

Hauspari eraginez Dirudi leoia.

Eskua jaten badit on egin dezaion,

Cervantesi holakorik gertatu zitzaion.

FURRA FURRA FANDANGUA... *(Musika)*

Eta orain banoa Berriro ohera,

Bila ez badatozkit Lolo egitera.

Bihar ikusiko da Zer dagoen berri,

Jakintsuenak ere Ezin du igerri.

Furra, furra, fandangua,

Hortxe duzu fandangoa geure gustukua (BIS)

ARRATSALDE HONETAN

(Musika)

Itxaroten ari gera, arratsalde honetan
zerbait aukeztekotan, jende honen aurrean.

Hemendik ateratzeko, kanta berri baten bat
zuek ez aspertzeko, arratsalde honetan

Honetan, honetan, honetan...

(Musika)

Laupabost akorde jota, kitar zahar honekin
dantzatzako doinua, ez dugu besterik.

Bi laguneko koadrila, izerdi patsetan
nahiko izango dira, arratsalde honetan

Honetan, honetan, honetan...

(Musika)

Taupadetan dut bihotza, dirua galtzetan
dantza egiteko gogoia, daramat zainetan.

Kitar binbolin doinuak, jarraituz badaukat
dibertitzako gaia, arratsalde honetan

Honetan, honetan, honetan...

(Musika)

BUELTAN DA

Itzuli dira, Udaberriko argi izpiak, loiolako zero gorriak erdibana idatziko ditugun istoriak.

Pikutara kezka guztiak, alperrik dira harresiak, hegoak ditugunontzat.

*Heldu orain eskutik ta goazen, amets berriak idazten, saiatuko gara elkarrekin,
Heldu orain eskutik ta goazen, bide berriak argitzen hasiko dira.*

(Ze) Bueltan da, barruan dugun pasiougarra,
Bueltan da, barruan dugun pasiougarra.

Itzuli dira, presa gabeko orduak elkarri begira
itzuli dira, eztarria urratu arte kantatzeko abestiak,

Itzuli da-a-a baldintza gabe maitatzeko ausardia,

Itzuli da-a-a gure begietan somatzen zen distira.

*Heldu orain eskutik ta goazen, amets berriak idazten saiatuko gara elkarrekin,
Heldu orain eskutik ta goazen, bide berriak argitzen hasiko dira.*

(Ze) Bueltan da, barruan dugun pasiougarra,
Bueltan da, barruan dugun pasiougarra

Ze ederra zaren, duda denak galduta dantzan hasten zarenean.

Ze ederra zaren, inperfekzio perfektu horiek agerian.

Ze ederra zaren, marraztu zenetik kanpo amesten duzunean.

Ze ederra zaren, irribarrez.

*Heldu orain eskutik ta goazen, amets berriak idazten saiatuko gara elkarrekin,
Heldu orain eskutik ta goazen, bide berriak argitzen hasiko dira.*

(Ze) Bueltan da, barruan dugun pasiougarra,
Bueltan da, barruan dugun pasiougarra.

Bueltan da, Bueltan da barruan dugun pasiougarra,

Bueltan da, Bueltan da barruan dugun pasiougarra,

Bueltan da, Bueltan da barruan dugun pasiougarra,

Bueltan da, Bueltan da barruan dugun pasiougarra

Bueltan da...

PORRU PATATA

Santur txin da txin datorren artista bat naiz ni **(BIS)**

Ondo jotzen det, Baita nik ere, “Ni golpe” nik jotzen det,

Pe-pe-pe, Pe-pe-pe, Pee Pe-pe-pe-pe-pe-pee **(MUSIKA X2)**

-Nire kolegi Jaimito da ta, Nire partido Porru Patata,

-Jaurlaritzan behin botatu, Sin queriendo konturatu ta tranpetan harrapatu **(BIS)**

Akordeoia nik jotzen dot, Do menor eta do mayor,

Orejarekin entzungo, Gozategi kalejiran,

Ta Sevillan giraldilla, Ipurdiko pelletilla

Zapatari zapatilla...Guardia Zibila.

-Aerportuan zezenak eta, Hegazkinak zezen plazan,

-Esperantzarekin baina, Ez balantzarekin aña ta Marianok lurra jo dik. **(BIS)**

Akordeoia nik jotzen dot, Do menor eta do mayor

Orejarekin entzungo, Gozategi kalejiran

Ta Sevillan giraldilla, Ipurdiko pelletilla

Zapatari zapatilla...Guardia Zibila. *(MUSIKA)*

-Nire kolegi Jaimito da ta, Nire partido Porru Patata,

-Jaurlaritzan behin botatu, Sin queriendo konturatu ta tranpetan harrapatu.

Aerportuan zezenak eta Hegazkinak zezen plazan

Esperantzarekin baina, Ez balantzarekin aña ta Marianok lurra jo dik.

Akordeoia nik jotzen dot, Do menor eta do mayor

Orejarekin entzungo, Gozategi kalejiran

Ta Sevillan giraldilla, Ipurdiko pelletilla

Zapatari zapatilla...Guardia Zibila.

Lai Larala lalala.....

SUZKO ERROBERAK

Gauerdian zelai bakarti bat, herriaren mugarrian
Zurumurru batek apurtzen du haraneko isila.

Aingerua deabruz jantzita, sorbaldatik zirika
Onena galdu nahi ez badek, ezin gaituk erretira.

Besoak zabalik, haizea azalean, adrenalina zainetan,
jakin bazenu zure bihurri aurpegi hori, zenbat gustatzen zaidan.

Besoak zabalik, haizea azalean, adrenalina zainetan,
bihotza gidari dugunok ez dugu inoiz iparorratzik eskutan.

Suzko erroberaaak, bihurtzen gara

Suzko erroberaaak, gauaren babesean. (MUSIKA)

Damuaren mamuak ozenki esan zuen,
pentsatu zazue ondo arauak hautsi baino lehen.
Zuzena oker, okerra zuzen, hemen ez da inor libratzeen
noizean behin, noizean behin.

Besoak zabalik, haizea azalean, adrenalina zainetan
jakin bazenu zure bihurri aurpegi hori, zenbat gustatzen zaidan.

Besoak zabalik, haizea azalean, adrenalina zainetan
bihotza gidari dugunok ez dugu inoiz iparorratzik eskutan.

Suzko erroberaaak, bihurtzen gara

suzko erroberaaak, gauaren babesean. (MUSIKA)

Ez, Ez dago gerorik, Ez,
egin gabekoagatik baino eginagatik, damutu gaitezen.

(Suzko erroberak, bihurtzen gara)

(Suzko erroberak, gauaren babesean)

Suzko erroberaaak... Suzko erroberaaaak... Gauaren babesean.

KANTU BAT

Ahaztuko ez dugun udara, hartako koloreak bezala zara,

Haimaika ertera, hamaika algara Elkarrekin.

Berde marroi zuri, Zure begiradetako batekin,

Zalantza guztiak urtzen zaizkit, Bapatean.

Belarrira goxo-goxo esan zenidan,

Mundua konpontzea lortu bitartean,

Segi dezagun dantzan, Segi dezagun ametsetan,

Zu ta ni batera, geldiezinak gera.

KANTU BAT bizitako guztiari, KANTU BAT aurretik dugunari.

Bada zerbait airean, Bihotza aurretik jartzen denean,

Barru-barrutik hitz egitean, Gu gara.

Agian badakizu, Gaur ezingo gaituzte gelditu,

Beldurra atzean utzi dugu, Betirako.

Belarrira goxo-goxo esan zenidan,

Mundua konpontzea lortu bitartean,

Segi dezagun dantzan, Segi dezagun ametsetan,

Zu ta ni batera, geldiezinak gera.

KANTU BAT bizitako guztiari, KANTU BAT aurretik dugunari.

KANTU BAT bihotzaren erditik, KANTU BAT...

Berriz atzera itzuli beharko bagina, Ni zu gabe, ez noa inora,

Dena hutsetik sortu elkarrekin, Ta den dena gure erara. **(BIS)**

KANTU BAT bizitako guztiari, KANTU BAT aurretik dugunari.

KANTU BAT bihotzaren erditik, KANTU BAT, guretzat ba-ka-rrik (*Musika*)

KANTU BAT bizitako guztiari, KANTU BAT aurretik dugunari.

KANTU BAT bihotzaren erditik, KANTU BAT...

(Musika X2)

AMETSETAN

Bazter txiki bateko sustraiak, Erosotasunaren etsaiak,

Milaka kilometro amets berri baten bila.

Hartu zure lekua, berezior munduan, Iragana uzteko albo batera,

Iñurrien antzera pauso txikiz aurrera, Amestera.

Ametsetan Ametsetan, hamaika urte pasa dira,

Ametsetan Ametsetan, galdu genuen beldurra,

Ametsetan Ametsetan, zure mundutik gurera,

Ametsetan Ametsetan, ilargirako bidean! *(Musika X1)*

Bizitzeko garaia orain da, Arnasteko unea iritsi da,

Ba al dakizu zein den zure ametsik sakonena?

Hartu zure lekua, berezior munduan, Iragana uzteko albo batera,

Iñurrien antzera pauso txikiz aurrera, Amestera.

Ametsetan Ametsetan, hamaika urte pasa dira,

Ametsetan Ametsetan, galdu genuen beldurra,

Ametsetan Ametsetan, zure mundutik gurera,

Ametsetan Ametsetan, ilargirako bidean! *(Musika X1)*

(SUABE) Ametsetan, Ametsetan, hamaika urte pasa dira,

Ametsetan, Ametsetan, Ametsetan...

Ametsetan, Ametsetan, zure mundutik gurera,

Ametsetan, Ametsetan, Ametsetan...

Ametsetan Ametsetan, hamaika urte pasa dira,

Ametsetan Ametsetan, galdu genuen beldurra,

Ametsetan Ametsetan, zure mundutik gurera,

Ametsetan Ametsetan, ilargirako bidean! (BIS)

ILARGIRAKO BIDEAN, AMETSETAN...

AUKERA BERRIAK

(Musika)

Aurrera eta atzera ikusi pausu berdinak, Errepide zuzen honetan,
Marraztutako bidetik isiltasuna, Haizearen norabidean.
Puntu bati begira, galtzen dugu ingurua, Eta bertan dauden koloreak,
Baina bidegurutzeak dira aukera berriak, Dira aukera berriak,
Aukera berriak...

(Musika X2)

Ahaztutako ateak azaltzen hasten dira, Euren bila goazenean,
Ausardiaren hegoak astinduz hegan, Haizeak laztantzen nau orain,
Aldetara begira, sentituz ingurua, eta bertan dauden koloreak.
Nire bidegurutzeak dira aukera berriak, Dira aukera berriak,
Aukera berriak. *(Musika X2)*
Aukera berriak! *(Musika X2)*

Margotuko ditugu kolore berriak, (Ooooh...)

Irekiko ditugu batera ateak, (Ooooh...)

Margotuko ditugu kolore berriak, Orri zuri batetik ipuin ederrenak.

Irekiko ditugu batera ateak, Oihartzunak ekarri ditzala erantzunak...

Ta aukera berriak

(Musika X1)

Eta aukera berriak..

(Musika X1)

Margotuko ditugu kolore berriak, Orri zuri batetik ipuin ederrenak

Irekiko ditugu batera ateak, Oihartzunak ekarri ditzala erantzunak. (bis)

Eta aukera berriak...

INUNDIK IÑOARE

(Biolina)

Huntza!

(Musika)

Txispa batek sortzen du sugarra, Doinu honen berezko indarra,

Ta ez galdu inoiz irrifarra, Barra-barra, heldu gera Itziarra!

(Musika)

Hasi nahasi, horrek zenbat grazi, Gero ikasi eta irabazi

Mila hesi eta mila gezi, Izan berezi, berezi denak merezi!

(Musika)

Mozkortzeko ez egin zalantza, Ai ai badator gaueko arrantza,

Kalimotxoz pasa gera antza, bilintzi-balantza, hori da triskantza!

(Musika)

Sentimendu begiraden alde, Esku ta hanka jarri parez-pare

Trikitixa gure dantzen jabe, Hoiek gabe iñundik iñoare!

(Musika)

ZEINEN EDERRA IZANGO DEN

Zeinen ederra izango den,
Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten,
Muxu bat Larrunen,
Garagardo bat zerura eroritakoen omenez.

Herri txikietako festetan, Esnatuko bagina bihar,
Dantzatuko genuke plazetan, Sekula-santan ez bezala,
Eta kantu bakoitzean, Utziko genuke eztarria,
Azkenengoa bailitzan, Edota denetan lehenengoa,
Gu zorionekoak, Gordetako ametsen kutxa irekiak.

Zeinen ederra izango den,
Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten,
Muxu bat Larrunen,
Garagardo bat zerura eroritakoen omenez.

Ilobak amona ezagutzean, Haritz bat jaioko da Urban
Urteekin ohartuko gara, Betirako biziko zela,
Lagun minekin ilunabarra, Eternala bihurtuko da,
Xuxurlatuko digu ilargiak, Oraindik denok ez gaudela,
Gu zorionekoak, Gordetako ametsen kutxa irekiak.

Zeinen ederra izango den,
Eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten,
Muxu bat Larrunen,
Garagardo bat zerura eroritakoen omenez. [Ze(inen)] **(bis)**

IREKI BIHOTZA

(MUSIKA)

**Ireki bihotza maitea neretzako, Maite zaitudala badakizu oso ondo,
Amodioz beterik bihotza orain dut nik, Betirako elkartuta zurekin.**

(MUSIKA)

Ireki bihotza maitia ireki, Ireki bihotza ireki guztiz,
Ireki bihotza zuk nik bezela, Ireki bihotza zoriona da.

(MUSIKA)

Maite nauzu neskaxa, nik maite zaitut, Nire maitasuna besterik ez dut,
Elkar gu betiko biok izango gera, Biok gu betiko zoriona da.

(MUSIKA)

**Ireki bihotza maitea neretzako, Maite zaitudala badakizu oso ondo,
Amodioz beterik bihotza orain dut nik, Betirako elkartuta zurekin.**

(MUSIKA)

Ireki bihotza maitia ireki, Ireki bihotza ireki guztiz,
Ireki bihotza zuk nik bezela, Ireki bihotza zoriona da.

(MUSIKA)

Maite nauzu neskaxa, nik maite zaitut, Nire maitasuna besterik ez dut,
Elkar gu betiko biok izango gera, Biok gu betiko zoriona da.

(MUSIKA)

**Ireki bihotza maitea neretzako, Maite zaitudala badakizu oso ondo,
Amodioz beterik bihotza orain dut nik, Betirako elkartuta zurekin.**